



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urriaren 16a

18. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—11-23/PRO-00009. Foru Lege proposamena, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duena. Nafarroako alderdi Sozialista, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-23/MOC-00041. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egokitzapen unitate bat jar dezan Cintruénigoko Otero de Navascués IPan. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (5. or.).

—11-23/MOC-00042. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gardentasunaren nahiz publizitate aktiboaren arloetan dituen betebeharrak guztiak bete ditzan. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (6. or.).

—11-23/MOC-00043. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren neurriak susta ditzan eskoletako doktrinamendua amai dadin, batez ere testuliburuetan eta hezkuntza-materialetan. María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztu du (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-23/POR-00173. Galdera, Nafarroako osasun plan berri bat argitaratzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9. or.).

—11-23/POR-00174. Galdera, biriketako minbiziaren baheketako programa pilotuari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9. or.).

—11-23/POR-00175. Galdera, Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (10. or.).

—11-23/POR-00177. Galdera, etxerik gabeko pertsonen buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (10. or.).

—11-23/PES-00103. Galdera, Iruñeko alkatearen txio bati erantzunez Nafarroako lehendakariak "X" sare sozialean botatako mezuari buruzkoa. Galdera erretiratzea (11. or.).

- 11-23/PES-00120. Galdera, zahar-etxe publiko eta itunduetako itxaron-zerrendei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (11. or.).
- 11-23/PES-00121. Galdera, mendekotasunaren balorazioak izapidetzeko denborari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00122. Galdera, Aiegiko “La Hoya de Lucea” tiro-eremuari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00123. Galdera, Artetako iturburuan (Ollaran) basurde batek egindako erasoari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (14. or.).
- 11-23/PES-00124. Galdera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aparteko kenkariak pentsiodunengan duen eraginari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (15. or.).
- 11-23/PES-00125. Galdera, Gizarte Zerbitzuetako Dualia itzulpen-zerbitzuari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (16. or.).
- 11-23/PES-00126. Galdera, “Trantsizio garaiko eskuin muturreko terrorismoa Nafarroan” izeneko txostenari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (16. or.).
- 11-23/PES-00127. Galdera, Kasedako Udalak eraiki duen legez kanpoko artegiari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- 11-23/PES-00128. Galdera, Nafarroako autobideko erabiltzaileei egun bereko joan-etorriko bidaietan egindako deskontuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (18. or.).
- 11-23/PES-00129. Galdera, Hondakinen Funtserako bildutako zenbatekoei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).
- 11-23/PES-00130. Galdera, toki-entitateek Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoarekin dauzkaten zorrei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).
- 11-23/PES-00131. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzak zahar-etxeei erizaintzako zerbitzua emateari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (21. or.).
- 11-23/PES-00132. Galdera, Parlamentuaren atarian irailaren 27an egin zen elkarretaratze isilean Foruzaingoaren Esku-hartzeko Unitate Bereziak izandako jokabideari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Itxaso Soto Díaz de Cerio andrea Geroa Bai talde parlamentarioan sartzea (23. or.).
- Geroa Bai talde parlamentarioaren eleduna aldatzea (23. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2023. urterako ordainsariak (24. or.).
- Foru parlamentarien 2023. urterako ordainsariak. (24. or.).
- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2023an jasoko dituzten ordainsariak (25. or.).
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2023. urtean jasoko dituzten ordainsariak (25. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek 2023. urtean jasoko dituzten ordainsariak (26. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

11-23/PRO-00009. Foru Lege proposamena, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKI DA:

1. Agintzea Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzen duen Foru-lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Estatistikari buruzko Foru Legea 1997an onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak.

Foru lege horren bidez, Nafarroako Estatistika Institutua arautu zen, Nafarroako Foru Komunitatearen estatistika organoa izan zedin, Nafarroako interesgarria den estatistika jardueraren arduraduna.

Organo hori, araua egin zen garaiko dinamikari jarraikiz, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxiki zitzaion (30. artikulua 3. apartatua).

Atxikipen horrek zentzua galdu du, bi arrazoi-rengatik:

Lehenengoa, estatistika zeharkakoa delako eta sektore-eremu guztiei eragiten dielako, Nafarroako Estatistika Planean islatzen den bezala, eta unitate guztien inplikazioa izan behar duelako; beraz, ez du zentzurik ekonomia eta ogasun publikora bideratutako departamentu bati atxikitzeak, edo, gutxienez, legezko betebeharrak baten-gatik beste aukerarik ez izateak.

Bigarrena, funtsezkoa delako administrazioek beren burua antolatu ahal izatea zerbitzuak nahiz politika publikoak unean uneko egoeraren arabera ahal bezain ongi emateko.

Hortaz, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 30.3 artikulua indargabetzea proposatzen da, kudeaketa hobea eta unean uneko beharrezanez egokituagoa izan dadin.

Artikulu bakarra. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 30. artikuluko 3. apartatua kentzen da.

Xedapen gehigarri bakarra. Arauen erreferentziak.

Nafarroako Estatistika Institutua arautzen duten arauetan Ekonomia eta Ogasun Departa-

mentuari egiten zaizkion aipamen guztiak institutua atxikita dagoen departamentuari egiten zaizkiola ulertu beharko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/MOC-00041. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita egokitzapen unitate bat jar dezan Cintruénigoko Otero de Navascués IPan

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egokitzapen unitate bat jar dezan Cintruénigoko Otero de Navascués IPan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularraren talde parlamentarioari atxikitako Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena.

Egokitzapen unitateak/AEN Haur Hezkuntzako (2. zikloa) eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe arruntetan, publikoetan nahiz itunduetan, dauden ikasgelak dira. Unitate hauen xede nagusia da hezkuntza-erantzun egokia ematea ongi egituratu-

tako eta antolatutako giro batean, eta, era berean, testuinguru arrunt batek dakartzan aukera integratzaileak eta normalizatzaileak baliatu ahal izatea ikasleek.

Garapenaren nahasmendu orokorrekin edo/eta komunikazioaren nahasmendu larriekin eta problematika dakarren adimen atzerapenarekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzen dira, ikastetxe arrunteko eskolatzeko modalitatean. Ratioa 3 ikasletik 5era bitartekoa da.

Cintruénigoko Otero de Navascués IPak behar adina ikasle dauka egun, egokitzapen unitate bat abian jartzeko. Zenbait gurasok ere hori eskatu dute.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egokitzapen unitate bat jar dezan Cintruénigoko Otero de Navascués IPan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aldaketa oraingo ikasturtean, 2023-2024koan, egin dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter dezan ea egokitzapen unitate horiek foru-erkidegoko beste ikastetxe batzuetan ere jar daitezkeen, Nafarroako ikasleei gizarteratzen eta hezten laguntzeko.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-23/MOC-00042. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gardentasunaren nahiz publizitate aktiboaren arloetan dituen betebeharrak guztiak bete dituzan

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gardentasunaren nahiz publizitate aktiboaren arloetan dituen betebeharrak guztiak bete dituzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena.

2018ko maiatzaren 17an onetsi zen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legea, zeinak 2012tik indarrean zegoen aurrekoa ordeztu baitzuen eta honako printzipio honetan oinarritzen baitzen: salbuespenak salbuespen, herritarrena da informazio eta datu publikoen jabetza, eta Nafarroako administrazio publikoak horiek ematera behartuta daude.

Foru lege horren xedea da, besteak beste, ardura publikoan eta gobernu ekintzan gardentasuna arautu eta bultzatzea eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egiaz baliatzeko aukera bermatzea; horretarako, administrazio publikoaren publizitate aktiboaren betebeharrak arautzen ditu, informazio publiko horri dagokionez.

Nafarroako Gobernuak dauzkan gardentasun-betebeharrak, arauak ezarritako beste subjektu batzuen artean, 11. artikuluan datoz jasota, eta Nafarroako Gobernuari dagokion informazio publikoari buruzko publizitate aktiboaren gaineko betebeharrak, berriz, III. kapituluan (18. artikulutik 29. artikulura bitarte).

Bada, nahiz eta foru legeak hirugarren xedapen gehigarrian urtebeteko epea ezartzen zuen, legea indarrean sartu zenetik aitzina, publizitate aktiboaren arloko betebeharrak betetzeko, 5 urte baino gehiago igaro dira eta Nafarroako Gobernuak arlo horretako betebeharrak asko bete gabe jarraitzen du.

Gobernuak bete ez duen beste betebeharrak bat da seigarren xedapen gehigarrian jasotakoa, Gobernua behartzen duena legea betetzen dela ebaluatzerako.

Azkenik, ikusita Gardentasunaren Kontseiluaren 2022ko oroitidazkia eta Nafarroako Gobernuak foru parlamentarien eskubideei dago-kienz daukan jarrera, argi dago Gobernuak zuzendu egin behar duela herritarrek nahiz horien ordezkariak informazioa eskuratzeko eta Gobernu garden bat izateko eskubidearekiko jarrera obskurantista eta oztopatzailea.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du gehienez ere 4 hilabete-ko epean oso-osorik bete dituzan Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legeak gardentasunaren nahiz publizitatearen arloetan ezartzen dituen betebeharrak guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du gehienez ere 6 hilabete-ko epean bete dezan Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta legearen aplikazioari buruzko ebaluazio globala egin eta Nafarroako Parla-mentura igor dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du behin betikoz bazter dezan herritarrek eta foru parlamentariak informazioa jasotzeko eskubidearekiko jarrera oztopatzailea, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 11. eta 13. artikuluetan eta III. titulu-n nahiz Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezarritakoa bete dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-23/MOC-00043. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita behar diren neurriak susta ditzan eskoletako doktrinamen- dua amai dadin, batez ere testuliburuetan eta hezkuntza-materialetan

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar diren neurriak susta ditzan eskoletako doktrinamendua amai dadin, batez ere testuliburuetan eta hezkuntza-materialetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteari atxikitako María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko: Ikastetxeetan doktrinamendua amaitzeko hartu beharreko neurriak sustatzeari buruzko mozioa, batez ere testuliburuetan eta hezkuntza-materialean.

Zioen azalpena.

Hezkuntzarako eskubidea giza duintasunari hertsiki lotutako eskubidea da. Hainbat arauk babesten dute eskubide hori; bereziki, Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua. Gure Konstituzioak, hezkuntzarako eta irakaskuntza-askatasunerako eskubidea bermatzeaz gain, botere publikoei ezartzen die eskubide hori zaintzeko betebeharra; horretarako, "irakaskuntzaren programazio orokorrak baliatuko dira, kasuko sektore guztien benetako parte-hartzearekin eta ikastetxeak sortuz" (27. artikulua 5. apartatua).

Aurreko horrekin estu lotuta dago gurasoen eskubidea dutela beren seme-alabek jasotzen duten hezkuntza mota aukeratzeko, beren sinesmenen arabera. Eskubide hori botere publikoei

ezartzen zaie muga gisa, ikastetxeetan ideologia-ren bat inposatzeko debeku konstituzionalaren mende baitaude (27. artikulua 3. apartatua).

Azken batean, botere publikoek zaindu behar dute espainiarrek doako hezkuntza, zorrotza eta kalitatezkoa, jaso ahal izan dezaten, gazteentzako benetako gizarte-igogailua eta nazio-kohesiorako elementua izan dadin. Era berean, herri baten garapena eta oparotasuna hezkuntza-sistemaren bikaintasunaren mende dago neurri handi batean.

Hala ere, estatu autonomikoaren garapenaren eta hezkuntza-arloko eskumenak autonomia-erki-degoetako gobernuei lagatzearen ondorioz, azken urteotan, botere publikoek, nazioan nahiz erre-egioetan, gurasoen beren seme-alaben hezkuntza libreki aukeratzeko duten eskubidea ahultzen duten hezkuntza-politikak diseinatu dituzte, argi eta garbi ideologikoak diren hezkuntza-edukiak onartuz. Kasu askotan, edukiak ez datoz bat, inondik ere ez, gurasoen uste moral, politiko edo erlijiosoekin ez ezik, egia zientifiko edo historikoa-ekin berarekin ere.

Hala da, bai, botere publikoek irakaskuntzaren kalitateari eta osotasunari eman beharreko babesa eta ekarpena ez datoz bat gure erregioiko ikasleek, gurasoek, irakasleek eta ikastetxeek bizi duten errealitatearekin. Gure ikasle askok eduki nabarmen ideologikoak aurkitzen dituzte beren curriculum-testuliburuetan, zirikurik ez dutenak ezagutza zientifiko eta akademiko zorrotzarekin, material akademiko gisa kamuflatuta; halaber, gure historiari edo Espainiako errealitate sozial eta politikoari buruzko datu kerrak –edo zuzenean gezurrak– aurkitzen dituzte.

Bereziki larriak dira gure gazteak doktrinatu espainiarren arteko bizikidetzaren hausteko ahalegi-nak, Administrazio autonomikoak baimenduta edo are zuzenean bultzatuta ere. Gaur egun, testulibu-ru askoren bidez, hainbat kontzeptu ideologiko ezartzen ari dira, identitate artifizialak sortu nahi dituztenak, inguruabar pertsonaletan, geografiko-etan eta abar oinarrituta, espainiarren, bizilagunen edo familien arteko konkordia eta batasuna ahultzeko. Gure betebeharra da salatzea eta gobernu erregionalari eskatzea berehala, arduraz eta irmo-tasunez jarduteko, ikasgeletan sustatutako doktri-

namendu eta gizarte-liskar zeharo justifikatu gabe eta ez-legitimoari amaiera emateko.

Nafarroan, gogora ekarri behar da Skolae hezkuntza-programa afektibo sexuala, zeinari buruz Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2020ko ekainean ezarri baitzuen erabat deuseza zela programa hori ezartzea; hori gutxi ez balitz, Auzitegi Gorenak berretsiri egin zuen hori. Epaitegi-gietaraino iristen diren gai ideologiko horiek berretsi besterik ez dute egiten hezkuntzari ñabardura ideologikorik gabe heltzeko beharra.

Azken batean, bateraezinak dira hezkuntza-administrazioek kalitatezko hezkuntza-sistema bat eskaintzeko eta bermatzeko duten betebeharra eta irakaskuntza gero eta maizago ziprztintzen duten legeen onarpenaren bidez garatutako ezarpen ideologikoa. Erakundeek beren gain hartzen duten funtzio hezitzailea gurasoekiko lankidetzaprintzipioan oinarritu behar da, betiere familien askatasuna errespetatuta.

Zentzuzkoa da botere publikoek hezkuntza-sisteman esku hartzea – batez ere, horren eragin-kortasuna bermatzeko –, baina inoiz ez da ahaztu behar seme-alaben hezkuntzan zeregin nagusia

gurasoei dagokiela, eta aktibismo ideologiko antia-kademikoa ikasgeletatik eta testuliburuetatik kanpo mantenduta betiere.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Gurasoek beren seme-alaben hezkuntza askatasunez aukeratzeko duten eskubidea errespetatzeko eta horrela Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua bermatzeko konpromiso argia har dezan.

2. Hezkuntza-curriculumak berrikus ditzan eta beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroan Skolae proiektua eta adingabeen errugabetasunari eragin diezaiokeen edozein doktrinatzeko edo eduki kaltegarri jasotzen duten testuliburuak eta hezkuntza-materiala berehala erretira daitezen sustatzeko.

3. Gurasoek beren seme-alabek ikasgelan jaso dezaketan edozein eduki afektibo-sexual edo ideologiko alde aurretik ezagutzen eta onartzen dutela bermatzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

F saila:
GALDERAK

11-23/POR-00173. Galdera, Nafarroako osasun plan berri bat argitaratzeari buruzkoa*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroako osasun plan berri bat argitaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: Nafarroako Osasun Plana dela-eta, noiz argitaratuko duzue datozen urteetarako plan berri bat?

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/POR-00174. Galdera, biriketako minbiziaren baheketako programa pilotuari buruzkoa*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, biriketako minbiziaren baheketako programa pilotuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Osasuneko kontseilariari, batzordean ahoz erantzun dezan: Parlamentuak aho batez babestu zuen, 2022ko urrian aurkeztu zuen mozio baten bidez, biriketako minbiziaren baheketako programa pilotua. Zer urrats egin dira eta zer urrats egin nahi dira legegintzaldi honetan horri dagokionez?

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/POR-00175. Galdera, Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroari buruzkoa

MARÍA ARANZASU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzasu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako,

Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen IX. tituluak arautzen du Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroa (Babes-tutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko uztailaren 1eko 20/2022 Foru Legearen bidez jaso baitzen foru lege horretan titulu hori).

Halaber, 2023ko maiatzaren 11ko NAO n argitaratu zen Etxebizitzako zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez jarri zen abian erregistro hori, eta hiru hilabeteko epea ezarri zen egun horretan indarrean zeuden errentamendu-kontratuak inskribatzeko.

Kontseilariak zer balorazio egiten du erregistro hori abian jarri izanari eta orain arte eskaintzen dituen datuei buruz?

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

11-23/POR-00177. Galdera, etxerik gabeko pertsonen buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porras jaunak egindako galdera, etxerik gabeko pertsonen buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafrañca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: Nafarroako Gobernuak zer egiten du, epe motzean, etxerik gabeko pertsonen egoera bideratzeko eta, epe ertainean, kolektibo horri laguntza emateko sistema aldatzeko?

Iruñean, 2023ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

11-23/PES-00103. Galdera, Iruñeko alkatearen txio bati erantzunez Nafarroako lehendakariak "X" sare sozialesan botatako mezuari buruzkoa

GALDERA ERRETIRATZEA

2023ko urriaren 9an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Ángel Ansa Echegaray jaunak erretiratu duela Iruñeko alkatearen txio bati erantzunez Nafarroako lehendakariak "X" sare sozialesan botatako mezuari buruz egindako idat-

ziko galdera, zeina 2023ko urriaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/PES-00120. Galdera, zahar-etxe publiko eta itunduetako itxaronzerrendei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, zahar-etxe publiko eta itunduetako itxaron-zerrendei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren Gizarte Zerbitzuen Zorroak prestazio bermatu gisa jasotzen du adinekoentzako egoitza-arreta, zeina plaza publikoen edo itunduen bidez eskainiko baita. Zerbitzu horren jarraipena egin ahal izateko, honako galdera hau egin nahi diogu Eskubide Sozialetako Departamentuari: zer itxarote-zerrenda dago gaur egun, eta zenbat denbora itxaron behar da batez beste zahar-etxe publikoetako toki bat (El Vergel, Santo Domingo eta udalaren zahar-etxeak), alde batetik, eta itundutako zahar-etxeetako toki bat, bestetik, lortzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-23/PES-00121. Galdera, mendekotasunaren balorazioak izapidetzeko denborari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, mendekotasunaren balorazioak izapidetzeko denborari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren Gizarte Zerbitzuen Zorroak prestazio bermatu gisa jasotzen du mendekotasuna baloratzeko zerbitzua. Zerbitzu horren jarraipena egin ahal izateko, honako galdera hau egin nahi diogu Eskubide Sozialetako Departamentuari: zenbat denbora behar da gaur egun mendekotasun-balorazioak egiteko, eskatzen diren arte?

Iruñean, 2023ko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-23/PES-00122. Galdera, Aiegiko “La Hoya de Lucea” tiro-eremuari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Aiegiko “La Hoya de Lucea” tiro-eremuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hauek egin nahi dizkio Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2014ko azaroaren 21ean Ingurumen Kalitatearen eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren 223E/2014 Ebazpena eman zen; haren bidez ingurumen ukipenatarako baimena ematen da Aiegiko “Hoya de Lucea” izeneko parajearen Aiegiko Udalak sustatutako “tiro-zelaia” proiekturako, baldintzak jarrita, aipatu baimena haien menpe dutenak.

Geroago, Basozaintzak bi txosten eman zituen, 2016ko otsailaren 1ean eta abuztuaren 31n, non agertzen den ez zirela bete baimena haien menpe zuten baldintzak. Berezi aipatzen dira jarduerak sorrarazten dituen ingurumen ukipenak, eta egiaztatzen da ez direla kendu platerak, perdigoiak eta plater-tiroketak dakartzan beselako hondakinak.

2017ko ekainaren 6an, 0003-0102-2017-000920 txosten juridikoan, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak ondorioztatzen du gertatua zela “iraungipen automatikoa, Ingurumen Kalitatearen eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariak azaroaren 21eko 223E/2014 Ebazpenaren bidez Aiegiko Udalarari “Hoya de Lucea” parajearen tiro-zelaia proiekturako emandako ingurumen ukipenatarako baimenean”.

2022ko abuztuaren 27an, Aiegiko Udalak plater-tiroketa jarduerarako deialdia egin zuen herriko aurrejaietarako egitarauaren barnean. Jarduera egitarauan iragartzen zen, “Plater-tiroketa tiro-zelaian, txapeldunendako sariekin” izenaren bidez. Abuztuaren 27an egin zen, ustez ingurumen ukipenatarako baimenik ez duen tiro-zelaian.

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Adolfo Araiz Flamariquek egindako galdera idatziei erantzunez (10-22/PES-00241), Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Itziar Gómez Lópezek honako hau adierazi zuen 2022ko azaroaren 10ean:

– Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Zerbitzu Juridikoko Ingurumeneko Araubide Juridikoaren Atalak 2017ko ekainaren 6an emandako ebazpenaren arabera –Aiegiko Udalarari 2017ko ekainaren 15ean jakinarazia– ulertzen da iraungipen automatikoa gertatua dela Ingurumen Kalitatearen eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariak azaroaren 21eko 223E/2014 Ebazpenaren bidez Aiegiko Udalarari “Hoya de Lucea” parajearen –Aiegiko udal-mugartean– tiro-zelaia proiekturako emandako ingurumen ukipenatarako baimenean.

– Aiegiko Udalak, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Zerbitzu Juridikoko Ingurumeneko Araubide Juridikoaren Atalari igorritako 2017/409308 zenbakiko eskabidearen bidez, eskatu zuen indarraldia luzatzea Ingurumen Kalitatearen eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariak azaroaren 21eko 223E/2014 Ebazpenaren bidez Aiegiko udalarari “Hoya de Lucea” parajearen –Aiegiko udal-mugartean– tiro-zelaia proiekturako emandako ingurumen ukipenatarako baimenari dagokionez. Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Zerbitzu Juridikoko Ingurumeneko Araubide Juridikoaren Atalak 2017ko abuztuaren 24an emandako txostenaren bidez erantzun zuen, behin espedientea berrikusita, egokia zela 2017ko ekainaren 6an emandako txosten juridikoa berrestea, eta iraungitzat jotzea Aiegiko Udalak bultzatuta Aiegiko “Hoya de Lucea” parajearen “tiro-zelaia” proiekturako ingurumen ukipenatarako

baimena –Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko zuzendariak azaroaren 21eko 223E/2014 Ebazpenaren bidez emana–.

– Ingurumeneko zuzendaritza nagusi horretan ez zen jasota ageri tiro-eremu hori erabiltzeko eskabiderik aurkeztu zenik, ez inongo administrazio-izapiderik egin zenik jarduera hori –hau da, 2022ko abuztuaren 27an egin zen jarduera– baimentzeari buruz.

– 2022ko abuztuaren 27an plater-tiroketa jarduera egin ondoren, departamentuak basozainen zerbitzuari ez zion eskatu Aiegiko tiro-zelaian inolako ikuskapenik egiteko; izan ere, ez zen inon jasota ageri jarduera hori eginen zela.

Aurtengo festetan, Aiegiko Udalak berriz antolatu zuen plater-tiroketa herrikoia “La Hoya de Lucea” tiro-eremu zaharrean. Jarduera hori 2023ko abuztuaren 26an egin.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

1.- 2022ko abuztuaren 27an plater-tiroketa jarduera egin zela jakin baitugu –hain zuzen ere, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek iazko abuztuaren 31n egindako galderei esker–, departamentuak inolako ikuskapenik egin al zuen basozainen zerbitzuaren bidez jarduera horretan sortutako plater nahiz berun hondakinak desagerrarazi zirela egiaztatu ahal izateko?

Departamentuak administrazio-prozedurarik abiarazi al zuen, Aiegiko Udalak tiro-eremuan baimenik gabe antolatutako jarduerak direla-eta?

2.- Ikusita tiro-eremuan aurten berriz ere egin dela plater-tiroketa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ba al du jarduera hori egin izanaren frogarik? 3.- “La Hoya de Lucea” tiro-eremuaren erabilerari dagokionez, zein da gaur egun egoera juridikoa? Egin al du Aiegiko Udalak eskaerarik jarduera horretarako baimena lortzeko?

3.- Plater-tiroketa aurtengo jarduerak izan beharreko administrazio-baimenak ez baldin badauzka, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ba al du neurririk hartzeko asmorik? Basozainen zerbitzuak ikuskapenik eginen al du aurten tiro-eremuaren egoera zein den begiratzeko?

Iruñean, 2023ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-23/PES-00123. Galdera, Artetako iturburuan (Ollaran) basurde batek egindako erasoari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Artetako iturburuan (Ollaran) basurde batek egindako erasoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Joan den igandean, 2023ko urriaren 1ean, Artetako iturburuan (Ollaran) bi pertsona larri zauritu zituen basurde baten erasoak, eta helikopteroan eraman behar izan zituzten Nafarroako Unibertsitate Ospitalera. Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuenez, suhiltzaileen erreskate tekniko taldea, helikoptero medikalizatu bat, bi ambulanzia medikalizatu eta Foruzaingoaren patruilak ere mobilizatu behar izan ziren. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

- Zer neurri hartuko dira halako gertakariak ekiditeko?

- Halakorik edo antzekorik gertatu al da lehenago ala gertakari bakan bat izan da?

- Inguru horretan eta turistak nahiz bisitariak ibiltzen diren beste batzuetan halako animaliak egon badaudenez, ba al dago segurtasun neurririk edo protokolorik eta informazioz ematen al zaie turistei eta bisitariari? Halakorik baldin bada, adierazi zeintzuk diren.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-23/PES-00124. Galdera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aparteko kenkariak pentsiodunengan duen eraginari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aparteko kenkariak pentsiodunengan duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari José Luis Arasti Pérez jaunari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak Nafarroako 2023ko aurrekontu orokorreari buruz hartutako konpromisoen akordioaren ondorioz, PFEZa aldatzen duen 33/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa, onetsi zen. Aldaketa horrek aparteko kenkari bat jasotzen du errenta ahulenen kuota osoan 2022ko zergaldian. Horri dagokionez, honako hau jakin nahi dugu:

Zer eragin izan du kenkari horrek pentsiodunen kolektiboan? Zenbat onuradun izan dira? Zenbat izan zitezkeen onuradun baina ez zuten kenkaria eskatu? Zer egin zuen Nafarroako Gobernuak kenkari horren berri emateko onuradun izan zitezkeen pertsonen kolektiboari?

Iruñean, 2023ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-23/PES-00125. Galdera, Gizarte Zerbitzuetako Dualia itzulpen-zerbitzuari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Gizarte Zerbitzuetako Dualia itzulpen-zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreari, idatziz erantzun dezan: Gizarte zerbitzuek Dualia itzulpen-zerbitzua baliatzeari utzi zioten ekainean. Zergatik? Noiz eta nola berrezarriko da zerbitzua?

Iruñean, 2023ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-23/PES-00126. Galdera, “Trantsizio garaiko eskuin muturreko terrorismoa Nafarroan” izeneko txostenari buruzkoa

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera, “Trantsizio garaiko eskuin muturreko terrorismoa Nafarroan” izeneko txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Jurramendiko 1976ko gertakariei buruz 2023ko urtarrilean agertu diren datuak ikusita – dokumentu ofizialetan oinarritzen dira –, departamentuak ba al du asmorik Trantsizio garaiko eskuin muturreko terrorismoa Nafarroan izeneko txostena aldatzeko?

Martorell jaunak Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak eskatuta egindako zuzenketetatik, zergatik desagertu da testuinguruan jartzeko paragrafo bat?

Iruñean, 2023ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-23/PES-00127. Galdera, Kasedako Udalak eraiki duen legez kanpoko artegiari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Kasedako Udalak eraiki duen legez kanpoko artegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 16ko 5E/2023 Ebazpenaren bidez lehendabiziko hertsapen-isuna ezarri zitzaion Kasedako Udalari –600 eurokoa–, aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko agindua ez betetzeagatik.

Lurraldearen Antolamenduaren arloko eskumena duen departamentuak espedientea abiarazi zuen, Kasedako Udalak 9. poligonoko 1. lurzatian –El Planaz alderdian– egindako lanak direla-eta

hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko. Ebazpen horrek Kasedako Udalari agintzen dio eraikitako artegia eraitsi dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik, lurra fisikoki itzul daitezzen urraketa egin baino lehenagoko egoerara.

Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 16ko SE/2023 Ebazpenaren bidez, hiru hilabeteko beste epe bat eman zen, Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren ekainaren 27ko SSE/2022 Ebazpenak agindutako eraispena bete zedin.

Galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dut:

1.- Kasedako Udalak bete al du Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren ekainaren 27ko 85E/2022 Ebazpenaren bidez emandako eraispen-agindua?

2.- Kasedako Udalari beste hertsapen-isunik jarri al zaio aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko agindua ez betetzeagatik? Hala baldin bada, zenbat eta zer zenbatekoak izan dira?

3.- Kasedako Udalak legez kanpo eraikitako artegia eraisteko agindua aldiro urratu duela ikusita, departamentu eskudunak ba al du asmorik jarduketa subsidiariorik egiteko, Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren ekainaren 27ko 85E/2022 Ebazpenean ezarritakoa bete dadin?

Iruñean, 2023ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/PES-00128. Galdera, Nafarroako autobideko erabiltzaileei egun bereko joan-etorriko bidaietan egindako deskontuei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako autobideko erabiltzaileei egun bereko joan-etorriko bidaietan egindako deskontuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari José Luis Arastik Parlamentuan adierazi du foru gobernuak bere gain hartuko duela joan-etorria egunean bertan egiten duten "AP-15eko erabiltzaileendako deskontuen kostu osoa".

Orain arte, deskontu horiek Estatuaren funtsen bidez finantzatzen ziren.

Kontseilariak adierazi zuen foru gobernuak uste duela beharrezkoa dela deskontuen indarraldia luzatzea, ibilgailu arinek gaur egun dauzkaten baldintza berberak izaten jarrai dezaten, eta Nafarroako Gobernuak deskontu horien kostu osoa hartuko duela bere gain, bidaia doan izan dadin joan-etorria 24 ordutan egiten duten AP-15eko erabiltzaileentzat.

Galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dut:

1.- Gobernuak noiz arte finantzatu nahi du joan-etorria egunean bertan egiten duten AP-15eko erabiltzaileendako deskontuen kostua? 2023ko ekitaldian soilik ala hurrengo urteetan ere bai?

2.- Deskontuak ordaintzeak zer kostu izanen du aurrekontu-ekitaldi honetan?

3.- Nola finantzatuko da kostu hori eta zer aurrekontu-aldaketa egitea aurreikusten du?

4.- Deskontu horiek ordaintzeak zer kostu izanen luke aurrekontu-ekitaldi batean?

Iruñean, 2023ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/PES-00129. Galdera, Hondakinen Funtserako bildutako zenbatekoei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Hondakinen Funtserako bildutako zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 42. eta 43. artikuluetan jasotzen da Hondakinen Funtsera eratu dela hondakinak sortzeak eta kudeatzeak giza osasunari eta ingurumenari eragiten dizkien eragin kaltegarriak arintzeko neurriak finantzatzeko.

Hondakinen funtsa hondakinen hierarkiako goiko mailak lehenetsiz eta helburuak betetzea eta ingurumen premiak kontuan hartuta, hondakinen fluxu bakoitzak hartarako egiten duen ekarpen ekonomikoaren proportzioan eta honako arlo hauen arabera banatuko da urtero: hondakinen sorrera prebenitzeko ekintzak sustatzea; hondakinen kudeaketaren arloko ikerketa eta garapena, ekodiseinua barne; sentsibilizazioa, komunika-

zioa, laguntzea, heziketa eta prestakuntza; berreskuratzearako prestatzeko jarduketak; ekonomia zirkularra sustatzeko eta aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko jarduketak, hondakinei dago kienez; gaikako bilketa sistemak hobetzea; birziklatzeko eta balorizazio materialerako sistemak optimizatzea edo hobetzea; hondakinen arloko boluntario lanak; hondakinen ondorioz andeatutako eremuak berreskuratzea; hondakinak kudeatzeko instalazioen trazabilitate, kontrol eta estandarizazio sistemak hobetzea, eta sorreragatik ordainketa ezartzea.

Galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dut:

1.- Zenbat diru bildu da 2019tik 2022ra bitarteko urte bakoitzean hondakindegian ezabatzearen eta erraustzearen gaineko zergaren bidez Hondakinen Funtserako?

2.- Ba al dago entitate pribatu edo publikorik 2019tik 2022ra bitarte zorretan dagoena isurketa-zergaren likidazioak direla-eta? Zein? Zenbatekoa da zorra?

3.- Hondakinen Funtsetik dirulaguntzetara bideratu beharreko zer zenbateko ez da gastatu? Hondakinen Funtseko fluxu bakoitzerako zer zenbateko dagokio 2019tik 2022ra bitarteko urte bakoitzari?

4.- Hondakinen Funtsek zer zenbateko dauka metatuta eta gastatu gabe guztira 2023ko ekainaren 30era bitarte?

5.- Gobernuak nola gastatuko du diru hori, kontuan hartuta hondakindegian ezabatzearen eta erraustzearen gaineko zergak izaera finalista duela?

Iruñean, 2023ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/PES-00130. Galdera, toki-entitateek Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoarekin dauzkaten zorrei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, toki-entitateek Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoarekin dauzkaten zorrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Nafarroako Gobernuak 2007ko martxoaren 19ko erabaki bidez onetsi zituen Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoaren estatutuak. Partzuergoko kide dira hondakinen

kudeaketaren arloko eskumenak dauzkaten udalez gaindiko toki-entitate guztiak eta udal bat, salbu eta Iruñerriko Mankomunitatea. Partzuergoaren lehendakaritza Toki administrazioko kontseilariari dagokio, Nafarroako Gobernuak % 50eko partaidetza du, eta gainontzeko % 50 partzuergoko toki-entitateena da.

Partzuergoaren gastuen finantzaketa partzuergo-tasa bakarretik heldu da batez ere. Partzuergoa osatzen duten toki-entitateek partzuergoaren izenean kobratzen dute, tratamendua dela-eta, tasa hori.

Galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dut:

1.- Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoan parte hartzen duten toki-entitateen zorra zenbatekoa da guztira?

2.- Zor hori nola banatzen da toki-entitateen artean? Zein urtetakoak da zorra? Zenbatekoa da entitate bakoitzaren urteko zorra? Zer kontzepturi dagokio (partzuergo-tasa...)?

3.- Zein da entitate bakoitzaren zorraren egoera (borondatezko epeko ordainketa, bide exekutiboa...)?

Iruñean, 2023ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/PES-00131. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzak zahar-etxeei erizaintzako zerbitzua emateari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzak zahar-etxeei erizaintzako zerbitzua emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

92/2020 Foru Dekretuak, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemaren barruan, egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua arautzen du adinekoen, desgaitasuna dutenen, eritasun mentala dutenen eta gizarte-inklusioaren arlo-

etan, eta bestetik, baimenen, aurretiazko komunikazioen eta homologazioen araubidea.

Hirugarren xedapen iragankorrean –Erizaintzako ratioak egoitza zentro txikietan– honako hau dio: Egoitza zentroaren ahalmena 50 tokitik beherakoa bada eta, eskaintzen diren egoiliar-toki publikoak eta zerbitzuari lotutako prestazioak batera hartuta, okupazioa %50era iristen ez bada, erizaintzako langileen zerbitzua Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarrizko osasun laguntzatik jasotzen ahalko da, aurretik harekin adostuta eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak baimentzen badu.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Hirugarren xedapen iragankorrean adierazitako ezaugarriak dituzten zenbat eta zein egoitza zentrok eskatu dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erizaintza-zerbitzua eman dakien?

Hirugarren xedapen iragankorrean adierazitako ezaugarriak dituzten zenbat eta zein egoitza zentrok eskatu dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Oinarrizko Osasun Laguntzaren erizaintza-zerbitzua eman dakien Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentziaren baimenarekin?

Iruñean, 2023ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-23/PES-00132. Galdera, Parlamentuaren atarian irailaren 27an egin zen elkarretaratze isilean Foruzaingoaren Esku-hartzeko Unitate Bereziak izandako jokabideari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Parlamentuaren atarian irailaren 27an egin zen elkarretaratze isilean Foruzaingoaren Esku-hartzeko Unitate Bereziak izandako jokabideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren 209. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Barneko Departamentuak idatziz erantzuteko:

Iragan irailaren 27an, elkarretaratze isila egin zen 12:00etan Nafarroako Parlamentuaren egoitzan, Madrilen emakume bat erail izana gaitzesteko. Vox talde parlamentarioak honako hau zioen bere kartel propioarekin parte hartu zuen: "Indarkeriak ez du generorik, indarkeria mota ororen aurka eta biktima guztien gomutan."

Gertakari horrek eragin zuen Foruzaingoko Esku Hartzeko Unitateko buruak, Parlamentuko Foruzaingoko Babes Zerbitzuko buruarekin batera, foru parlamentari Emilio Jiménez Román jaunari esan ziezaion gainontzeko parlamentariengandik 5 bat metrora jar zedin; horiek "Stop erasotzaileei" goiburuko pankarta bat zeramaten.

Nork eman zion agindu hori Foruzaingoko Esku Hartzeko Unitateari?

Iruñean, 2023ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Itxaso Soto Díaz de Cerio andrea Geroa Bai talde parlamentarioan sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Itxaso Soto Díaz de Cerio foru parlamentari andreak 2023ko urriaren 3an idazki bat aurkeztu zuen, zeinaren bidez jakinarazten baitu Geroa Bai talde parlamentarioan sartu dela.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 35. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Itxaso Soto Díaz de Cerio foru parlamentari andrea Geroa Bai talde parlamentarioan sartu dela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Geroa Bai talde parlamentarioaren eleduna aldatzea

2023ko urriaren 3ko idazkiaren bidez, Geroa Bai talde parlamentarioak Pablo Azcona Molinet jauna eledun izendatu duela jakinarazi zuen, Uxue Barcos Berruezo andrearen ordean.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2023. urterako ordainsariak

2023ko urriaren 9an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2023ko urtarrilaren 16ko Mahaiaren erabakia aplikatuz, txosten bat eman du, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2023. urterako ordainsariak eguneratzeari buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko

Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Onestea, 2023ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, lehendakariaren urteko ordainsari gordina 78.931,30 eurokoa izanen dela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru parlamentarien 2023. urterako ordainsariak

2023ko urriaren 9an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2023ko urtarrilaren 16ko Mahaiaren erabakia aplikatuz, txosten bat eman du, foru parlamentarien 2023. urterako ordainsariak eguneratzeari buruzkoa.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17., 19. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau ERABAKI DA:

1. % 0,5eko ordainsari-gehikuntza gehigarri finkagarria aplikatzea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden foru parlamentarien ordainsariei, 2023ko urtarrilaren 1eko ondorioekin.

2. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 64.901,20 eurokoa izanen dela 2023. urterako.

3. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 57.688,54 eurokoa izanen dela 2023. urterako.

4. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 48.694,24 eurokoa izanen dela 2023. urterako.

5. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 43.266,30 eurokoa izanen dela 2023. urterako.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2023an jasoko dituzten ordainsariak

2023ko urriaren 9an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2023ko urtarrilaren 16ko Mahaiaren erabakia aplikatuz, txosten bat eman du, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2023an jasoko dituzten ordainsariak eguneratzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17. eta 42. artikuluek ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. % 0,5eko ordainsari-gehikuntza gehigarria aplikatzea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden foru parlamentarien bertaratze-ordainsariei, 2023ko urtarrilaren 1eko ondorioekin.

2. Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2023an jasoko dituzten ordainsariak onestea. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 157,36 euroko ordainsaria, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, bizilekua Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

– 186,09 euroko ordainsaria, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, bizilekua Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2023. urtean jasoko dituzten ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2023. urtean jasoko dituzten ordainsariak eguneratzeari buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2023ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, honako hauek izanen direla Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak:

– Lehendakaritzako Kabineteko burua: 59.102,54 euro.

– Lehendakaritzako idazkaria: 44.459,10 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 35.974,26 euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 35.974,26 euro.

2. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratadunek 2023. urtean jasoko dituzten ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratadunek 2023. urtean jasoko dituzten ordainsariak eguneratzeari buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKI DA:

1. % 0,5eko ordainsari-gehikuntza gehigarri finkagarria aplikatzea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen ordainsariei, 2023ko urtarrilaren 1eko ondorioekin.

2. Onestea maila bakoitzaren hasierako soldatak 2023. urterako. Honako hauek dituzte urteko zenbatekoak:

Sailkapen-maila Urteko zenbatekoa

A	29.510,74 euro
B	24.826,34 euro
C	20.594,56 euro
D	17.935,96 euro
E	15.776,74 euro.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

